

ZIENTZIAREN ERTZETIK

Hitzaldi-solasaldia Ibone Ametzaga irakaslearekin

Ekosistemen zerbitzuak: naturaren onurak eta aukerak

Durango, 2026ko urtarrilaren 27an. Ekosistemak zaindu eta babestu beharreko kapital naturala dira. Beren prozesu eta funtzioen bidez, pertsonen ongizateari eta bizi-kalitateari lotutako onura ugari eskaintzen dizkigute. Naturatik zuzenean edo zeharka jasotzen ditugun onura horiei ekosistemen zerbitzuak esaten zaie.

Ur garbiaren ekoizpena, polinizazioa edo basoek klimaren erregulazioan duten zeregina bezalako zerbitzuek eragin zuzena eta zeharkakoa dute gure bizi-kalitatean, osasunaren, elikaduraren, ekonomiaren edota gizarte-harremanen arloetan.

Ekosistemen zerbitzuek duten garrantzia aztertzeko, **Ibone Ametzaga** biologoak, EHUko Garapen Iraunkorrari eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UNESCO Katedrako koordinatzaileak, "Ekosistemen zerbitzuak: naturaren onurak eta aukerak" izeneko hitzaldi-solasaldia eskainiko du.

Hitzaldian zehar, Ametzagak azalduko du zer diren ekosistemen zerbitzuak eta zein onura eta aukera eskaintzen dizkioten gizakiari. Gainera, ekosistemen kudeaketa iraunkorra bermatzeko gako batzuk zabalduko ditu, haien funtzionamendu egokia eta kontserbazioa ziurtatzeko funtsezkoak direnak.

Hitzaldi-solasaldia euskaraz izango da eta **Durangoko Bizenta Mogel Bibliotekan egingo da otsailaren 6an, ostirala, 18:30ean**. Jarduera hau [EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak](#) eta [Durangoko Biblioteka](#)k antolatzen duten *Zientziaren Ertzetik* dibulgazio zikloaren parte da. Sarrera librea izango da, edukiera

bete arte. EHUko Kultura Zientifikoko Katedraren [TikTok](#) kanalean ere jarraitu ahal izango da *streaming* bidez.

Hizlaria

[Ibone Ametzaga Arregi](#) Biologia Zientzietan doktorea da (Londreseko Imperial College) eta EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultatean Landare Biologia eta Ekologia sailaren irakaslea da.

Gaur egun, EHUko Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UNESCO Katedraren koordinatzailea da. Katedra honen helburu nagusia iraunkortasunari eta ingurumen hezkuntzari buruzko ikerketa eta azterketa espezializatuak sakontzea da, diziplina anitzeko ikuspegi batetik, zientzia naturalak eta sozialak barne hartuz.

Hitzaldi-solasaldia

- **Hitzaldia:** "Ekosistemen zerbitzuak: naturaren onurak eta aukerak"
- **Hizlaria:** Ibone Ametzaga Arregi, EHUko Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UNESCO Katedraren koordinatzailea.
- **Data:** otsailaren 6an, ostirala.
- **Ordua:** 18:30ean.
- **Lekua:** [Bizenta Mogel Biblioteka](#). (Komentukalea, 8, Durango).
- **Hizkuntza:** euskara.
- **Streaming:** bai. [Katedratik](#) (TikTok).

ZIENTZIAREN ERTZETIK

Charla-coloquio con la profesora Ibone Ametzaga

Ekosistemen zerbitzuak: naturaren onurak eta aukerak (Servicios de los ecosistemas: los beneficios y oportunidades de la naturaleza)

Durango, 27 de enero de 2026. Los ecosistemas son un capital natural que debemos cuidar y preservar. Gracias a sus procesos y funciones, nos proporcionan numerosos beneficios vinculados al bienestar y a la calidad de vida de las personas. A estos beneficios que obtenemos directa o indirectamente de la naturaleza se les denomina servicios de los ecosistemas.

Servicios como la producción de agua limpia, la polinización o la regulación del clima por parte de los bosques influyen en nuestra calidad de vida, tanto de forma directa como indirecta, en ámbitos como la salud, la alimentación, la economía o, incluso, las relaciones sociales.

Para analizar la importancia de los servicios ecosistémicos, la bióloga **Ibone Ametzaga**, coordinadora de la Cátedra UNESCO sobre Desarrollo Sostenible y Educación Ambiental de la EHU, ofrecerá la charla-coloquio "Ekosistemen zerbitzuak: naturaren onurak eta aukerak (Servicios de los ecosistemas: los beneficios y oportunidades de la naturaleza)".

Durante su presentación, Ametzaga explicará en qué consisten los servicios ecosistémicos, así como algunos de los beneficios y oportunidades que ofrecen al ser humano. Además, también compartirá algunas claves para garantizar una gestión sostenible de los ecosistemas, esencial para asegurar su buen funcionamiento y conservación.

La charla-coloquio, que se impartirá en euskera, tendrá lugar el **viernes 6 de febrero a las 18:30 horas en Bizenta Mogel Biblioteka de Durango**, dentro del ciclo

divulgativo *Zientziaren Ertzetik*, organizado por la [Cátedra de Cultura Científica de la EHU](#) y la [Biblioteca de Durango](#). La entrada es libre hasta completar aforo y podrá seguirse en *streaming* a través del canal de [TikTok](#) de la Cátedra de Cultura Científica de la EHU.

La conferenciante

[Ibone Ametzaga Arregi](#) es doctora en Ciencias Biológicas (Imperial College of London). Es profesora del departamento de Biología Vegetal y Ecología de la Facultad de Ciencia y Tecnología de la Universidad del País Vasco.

En la actualidad, coordina la Cátedra UNESCO sobre Desarrollo Sostenible y Educación Ambiental de la EHU, cuyo objetivo principal consiste en profundizar en la investigación y los estudios especializados sobre sostenibilidad y educación ambiental desde una óptica interdisciplinar, englobando las ciencias naturales y sociales.

Charla-coloquio

- **Conferencia:** "Ekosistemen zerbitzuak: naturaren onurak eta aukerak (Servicios de los ecosistemas: los beneficios y oportunidades de la naturaleza)"
- **Conferenciante:** Ibone Ametzaga Arregi, coordinadora de la Cátedra UNESCO sobre Desarrollo Sostenible y Educación Ambiental de la EHU.
- **Idioma:** euskera.
- **Fecha:** viernes, 6 de febrero de 2026, 18:30 horas.
- **Lugar:** Bizenta Mogel Biblioteka (Komentukalea, 8, Durango).
- **Streaming:** sí. [Katedratik](#) (TikTok).